

## GURE ARTEA SARIAK, EPAIMAHAIAREN EBAZPENA

### a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria modalitatea.

Epaimahaiak Miren Arenzana proposatu du sari honen irabazle gisa.

Epaimahaiaren erabakia ondoren aipatuko ditugun arrazoietan oinarrituta dago eta honako meritu hauek aitortzen dizkio:

Hiru hamarkadaz lanean ibili ondoren, **Miren Arenzana Letamendi** (Bilbo, 1965) eskultoreak bere obretan beste esparru eta diziplina batzuetako erreferentziak erabiltzen ditu, adibidez, diseinua eta arkitektura. Laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, bere produkzioa industriako materialen (plastikoak, gomak, metakrilatoak...) eta eskulangintzako beste batzuen (bordatuak) inguruko ikerketa izateagatik definitzen da, baita eskulturaren praktika esanahi eta berrikuntza formaleko beste esparru batzuetara zabaltzen duten objektuak birziklatzeagatik ere.

Azken urteetan artistaren jarduera gero eta soilago bihurtu da, gu mugitzen eta bizi garen espazioa definitzeko, espazio hori galeriarena edo etxeko espazio batena izan kontuan hartu gabe. Arkitekturarekin jokoak, argia eta kolorea modu askotara inbrikatzen dira bere azken proposamenetan.

1989an, Arenzanak "MEN" izeneko bere lehen bakarkako erakusketa aurkeztu zuen Bilboko Andrew Lentzerian. Eta bi urte beranduago baino ez, bere lanaren erakusketa garrantzitsu bat antolatu zen Gasteizko Trayecto Galerian "Joseph & Josephine" izenburupean. Erakusketa horretan egiteko modu bat definitzen da; bertan nagusi dira artistaren produkzioaren izaera hibridoa eta diziplinarteko kutsua. Erakusketa hori aretoko arkitekturarekin elkarrizketan zegoen eskulturen paisaia gisa egituratzen zen. Arenzanaren hitzetan: "*Joseph & Josephine* Bilbo eta Londres artean garatu nuen lana da. Argi nuen piezak soilik ipintzera mugatuko ez zen erakusketa bat egin nahi nuela. Etxeko giroa sortzeko gogoa nuen, keinu horrekin bisitaria inguratuz (...) *Joseph y Josephine* gizon eta emakume perfektuen diseinu-patroia ziren, Dreyfuss-en arabera. Ironia eta umorea zeuden, jakina. Piezek idulkiaz ere hitz egiten zuten, edo, hobe esanda, eskulturaren zati baten edo beste baten garrantziaz. Zer da garrantzitsuagoa, idulkia ala pieza? Dominic Hasan izeneko PVC grisez egindako pieza bat zegoen. Dominic Hasan Londresko pisukide bat zen, eta gizon honek altzariak bata bestearen gainean pilatzen zituen. Altzariari keinua egiten zion eskultura bat zen. 30, 40 eta 50eko hamarkadetako altzariak gustukoak nituen, baita arkitektura arrazionalista ere".

Halaber, azpimarratu behar da Arenzanak bere obren eraikuntzan genero-ikuspegia ere barne hartzen duela. Artistaren hitzekin jarraituz: "Panty-ak, plastikozkoa izanik metalezko idulkia dirudien krema-tapa bat, takoiak, kolore gorri biziko gomak, jostailu-dendako materiala (nesken rola), industria-burdirdegietako DIYa L eta T formadun aluminio anodizatuko profilekin, handizkako denda txinatarreko eraikuntzako jostailugintzako piezak, aeromodelismoko piezak eta maketak (miniaturazko pertsonak), Pantone itsasgarria... Baita elikadura-industrian

erabiltzen diren koloretako PVCak eta industria-metodo garaikideak, adibidez, vacuum forming, laser-grabatua, etab. Hori guztia piezaren egitura funtzionalaren zati gisa osatuz txertatzen zen, hau da, inoiz ez anekdota gisa, baizik eta egituraren barruan justifikatuta zegoen zentzu batekin”.

Duela gutxi egin dituen erakusketa garrantzitsuenen artean honako hauek aipa daitezke: “68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018”, Bilboko Arte Ederren Museoan (2019); “Love3”, Carreras Múgica galerian (Bilbo, 2015); “Plus de Lumière”, LaTaller-en (Bilbo, 2014); eta Printemps de L’Art Contemporain (Marseille, 2013).

**Artearen lengoaiaren mugen eta beste diziplina batzuekin gurutzatzearen analisi honen izaera goiztiarrak, baita denboran praktika iraunkorrarekin artista zorrotz gisa duen posizioak ere, bere obra ondorengo belaunaldientzako erreferente gisa hitz egiteko aukera ematen digu.**

#### **b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria modalitatea.**

Epaimahaiak sari hau Sahatsa Jauregi Azkarateri ematea proposatu du.

Epaimahaiaren erabakia ondoren aipatuko ditugun arrazoietan oinarrituta dago eta honako meritu hauek aitortzen dizkio:

**Sahatsa Jauregi Azkaratek** (Itaparica, Bahía, 1984) eskulturari eta artxiboari lotutako lan bat burutzen du. Horretarako, kultura herrikoiairen formen analisi zorrotzetik jasotako erreferenteen erregistro zabalaz baliatzen da.

Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean eta Leongo Arte Garaikideko Museoan —Musac (2010)— Jon Mikel Euba, Sergio Prego eta Txomin Badiola artistek zuzendutako “Proforma” bezalako tailerretan prestatu ondoren, Jauregik hainbat sari jaso ditu, adibidez, 2013an Gipuzkoako Artista Berrien lehiaketan jasotakoa eta 2017an eskuratutako Bizkaiko Ertibil lehen saria. Jauregi, bere prestakuntza osatzeko, hainbat arte-egoitzetatik igaro da, adibidez, Pacific Film Archive (Berkeley 2012), Bilbaoarte Fundazioa (Bilbo, 2016) eta, duela gutxi, Consonni (Bilbo, 2017).

Artista gisa lanak egiteaz gain, Jauregi **Okela** elkarteko kide da. Okela, Bilbon artistek sortu eta kudeatutako espazio bat da. Halaber, Ulrike Ottinger-en inguruko zinema-zikloko zuzendarikide (2015) izan da eta hainbat erakusketa-proposamen garatu ditu, adibidez, “Kearen artxibogileak” (Tabakalera, Donostia, 2019). Aldi berean **erakusketa-diseinuaren** esparruan lan handia egin du zenbait erakusketatan parte hartuz, adibidez “Black is Beltza” (Azkuna Zentroa, Bilbo eta Ars Santa Mònica, Bartzelona, 2016) eta “Tirabirak” (DSS2016).

Baina etengabeko elkarlaneko saretan eragileak eta praktikak lotzen dituen Euskal Herriko artearen kartografia batean Jauregiren jarduera garrantzitsua bada ere, **artista gisa produzitzen duena bere belaunaldiko azpimarragarrienetakoen artean kokatzen da**. Azken urteetan eraiki duen formen eta irudien katalogo zabalak —hainbat testuingurutan eta euskarritan erakutsia— berau inguratzen duena modu berezi eta zehatz batean erregistratzen duen bildumagile artatsa bati buruz hitz egiten du. Inguratzen gaituenari buruzko ezohiko begirada bat da berea. Bertan gustuaren konbentzioak analizatzen ditu herrikoitasuna eta kitsch aipatzen dituen iruditeria konplexu eta aberats bat eraikiz.

Jauregiren hitzetan: “Etorkizunean eskultura moduan gauzatuko den hura erakusten duten argazki-album gisa koadernotan formalizatutako interesen artxibo baten zati den metodologia jarraitzen saiatzen naiz. Albuma bildumazaletasun-ekintza bat da. Bertan, espazio publikotan eta pribatutan aurkitutako formak eta irudiak jasotzen dira. Forma eta irudi horiek, asmo artistiko batekin hartu ez diren arren, sentsibletzat hartzen dira, eta erreferentzia eta prototipo gisa balio dute. Egokitzapen hori inoiz ez da simetrikoa; izan ere, eskultura osatzen denean horretarako aukeratutako objektu izaera sartzan da jokoan. Hau da, paraleloan diharduten bi ildo daude: inspiratzeko balio didaten hainbat jolas formaletan arreta, eta dituzten mugen arabera lantzen diren objektuen bilduma. Baten eta bestearen arteko distantziak erreplika nahita galarazten du”.

Duela gutxi egin dituen erakusketen artean honako hauek aipatu beharko lirateke: “Gio bat”, Raul Domínguez artistarekin batera (Bilbo, 2015); “Su su tumba”, Carreras Mugica-n (Bilbo, 2016) eta Taca Estudio espazioa, Ander Sagastiberrirekin batera (Palma Mallorcakoa, 2019).

**c) Arte plastiko eta ikusizko arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria modalitatea.**

Epaimahaiak erabaki du sari honen irabazle gisa Xabier Arakistain Ecenarro proposatzea.

Epaimahaiaren erabakia ondoren aipatuko ditugun arrazoietan oinarrituta dago eta honako meritu hauek aitortzen dizkio:

**Xabier Arakistain Ecenarro** (Bilbo, 1966) UPV/EHUko Informazio eta Gizarte Zientzien Fakultateko Ikus-entzunezko Komunikazio Sailean lizentziatu zen eta IADa eskuratu zuen. Arte-komisario eta feminista gisa definitzen du bere burua. 2007an, artearen eta kulturaren inguruan 2007ko Berdintasunaren Legearen artikuluari aurrea hartu zion ARCO'05 Adierazpenaren sustatzaileetako bat izan zen.

Halaber, bere jarduera erakusketetako komisariotzara zuzenduta dago. Erakusketa horietan gizonezko eta emakumezko artistak modu paritarioan ezartzen ditu eta arte ofizialaren historiografiaren kanonak aztertzen ditu. Honako hauek aipa daitezke: “Transexual Express” Bilbaoarte (Bilbo, 1999); “Transexual Express”, Rosa Martinezekin batera (Bartzelona, 2001); “Kiss Kiss Bang Bang” Arte Ederretako Museoa (Bilbo, 2007); “Guerrilla Girls” (2013); “Why Not Judy Chicago?” (2015); “Margaret Harrison. Diálogos entre el sexo, la clase y la violencia” (2017), Azkuna Zentroan (Bilbo). Erakusketa horiek nazioarteko sona handiko zentrotatik igaro dira.

2001 eta 2003 urteen artean, Arakistain Bilbaoarteko erakusketa-programaren arduraduna izan zen, eta 2006tik 2011ra Gasteizko Centro Cultural Montehermoso Kulturuneko zuzendari izan zen. Montehermoson kudeaketa feministako arte eta pentsamendu garaikideko zentro berritzaile bat sustatu zen. Bertako programa guztietan emakumeak gizonen parean ipini zituzten.

2008an, Lourdes Mendez antropologiarekin batera, diziplinarteko, nazioarteko eta belaunaldiarteko urteko *Producción artística y teoría feminista del arte. Nuevos debates* ikastaroa jarri zuen martxan. Programa horrek gure testuingurura hurbildu ditu, batetik, historikoki aitortutako figurak eta, bestetik, artearen eta feminismoaren abangoardia teorikoa.

Xabier Arakistainek honako leku hauetan eman ditu hitzaldiak: Londresko Tate Modern-en, Royal College of Art-en eta UCLan, Parisko EHESen, Vienako MAKen, Berlingo 8 Bienalean, New Yorkeko Brooklyn Museum-en New Museum-en, Boston College-n, Mexiko DFko MUACen, Costa Ricako Unibertsitatean, Santiago de Chileko Arte Ederren Museoan edo Madrilgo MNCARSen.